Astigarragako Udala
Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

# OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2012IPLE0008
**Eguna:** 2012-10-31
**Ordua:** 19:00-20:40
**Tokia:** Areto nagusia

**Bertaratuak**

| | |
|---|---|
| - Andoni Gartzia Arruabarrena | BILDU |
| - Maite Olatziregi Esparza | BILDU |
| - Ione Olatziregi Mendiorotz | BILDU |
| - Berta Arozena Bergara | BILDU |
| - Isabel Otero Glorie | BILDU |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo* | EAJ-PNV |
| - Bixente Arrizabalaga Bengoetxea | Hamaikabat |
| - Imanol Lizarralde Marín | Hamaikabat |

*bigarren puntuan bertaratua

**Bertaratu ez direnak**

| | |
|---|---|
| - Agin Rezola Laburu | BILDU |
| - Raul Redín Hernández | BILDU |
| - Ramón Aranzasti Loyarte | EAJ-PNV |

**Idazkaria**

- Xabin Olaizola Lasa

**Aztergaiak**

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **2012ko irailaren 27ko aktaren onarpena** | **1** | Aprobación del acta de 27 de septiembre de 2012 |
| **2013rako Zerga Ordenantzen Testu Bateginari hasierako onarpena ematea** | **2** | Aprobación inicial del Texto Refundido de las Ordenanzas Fiscales 2013 |
| **Hiri hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantzari hasierako onarpena ematea** | **3** | Aprobación inicial de la ordenanza reguladora de la recogida y tratamiento de residuos urbanos |
| **Kale-plazetan mahaitxoak eta** | **4** | Aprobación inicial de la ordenanza |

| | | |
|---|---|---|
| **eserlekuak jartzeko udal ordenantzari hasierako onarpena ematea** | | reguladora de la instalación de mesitas y sillas en calles y plazas |
| **Informazio, galdera-erreguak** | **5** | Información, ruegos y preguntas |

## Esan-eginak eta erabakiak

**1. <u>2012ko irailaren 27ko aktaren onarpena</u>**

Aktaren 5. orrialdean, Zorionek esandako hitzak txertatzeko eskatu du alkateak; hain zuzen ere, honako adierazpen hau: “udalak ikastolaren plan estrategikoa bazuela eta Eusko Jaurlaritzan aurkeztu zela” .

Ñabardura hori onetsita, Akta aho batez onartu da.

**1. <u>Aprobación del acta de 27 de septiembre de 2012</u>**

El alcalde solicita que se incorpore en el acta en la hoja 5, en la intervención de Zorione, la manifestación que hizo: “que el ayuntamiento tenía un plan estratégico de la ikastola que se presentó al Gobierno Vasco” .

Con la matización admitida se aprueba el Acta por unanimidad.

**2. <u>2013ko Zerga Ordenantzen Teste Bateginari hasierako onarpena ematea</u>**

Ogasun batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabaki hauek har daitezen proposatzen da irizpen horretan:

1.- 2013rako Zerga Ordenantzen Testu Bategina osatzea egun indarrean dagoen Zerga Ordenantzekin eta jarraian aipatzen diren dokumentu hauetatik sortzen diren proposamenekin:

a).- Udaleko kontu-hartzaileak eginiko txostena eta proposamenak.
b).- Udal gobernu taldeak eginiko proposamenak.
c).- Kultura sailak eginiko proposamenak.

2.- 2013rako Zerga Ordenantzen Testu Bateginari hasierako onarpena ematea.

**2. <u>Aprobación inicial del Texto Refundido de las Ordenanzas Fiscales 2013</u>**

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de hacienda, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

1.- Redactar el texto refundido de las Ordenanzas Fiscales 2013, que resulta de la integración de las ordenanzas fiscales vigentes y las modificaciones contenidas en los siguientes documentos:

a).- Informe-propuesta del interventor municipal.
b).- Propuesta del equipo de gobierno.
c).- Propuesta del departamento de cultura.

2.- Proceder a la aprobación inicial del Texto Refundido de las Ordenanzas Fiscales 2013.

3.- Hartutako akordioa eta dagokion espedientea jendaurrean jarriko dira 30 lanegun epea zabalduz, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

3.- El acuerdo adoptado y el expediente instruido se someten a información pública por el plazo de 30 días hábiles, contados a partir del siguiente hábil al de la inserción del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Informazioa honen arauzko epea inolako erreklamazio edo oharkizunik gabe igaroko balitz, hartutako erabakiak behin betiko onartutzat hartuko dira, akordio berririk hartu behar izan gabe.

Si transcurre el plazo reglamentario de esta información sin que se haya producido reclamación u observación alguna, se tendrán por definitivos los acuerdos adoptados, sin necesidad de nuevos acuerdos.

Jarraian, alkateak azalpen labur baten bitartez aldaketen edukia aurkeztu du, osoko bilkuran aurkeztu den proposamena ere barnean hartuta.

A continuación el alcalde hace una breve exposición del contenido de las modificaciones que incluya la propuesta que se formula al pleno.

Bixente Arrizabalagak esan du proposamenaren aurka bozkatuko dutela, beste proposamen bat dutelako; hain zuzen ere:
OHZ: familia ugaria izateagatiko zuzeneko hobariak kentzea, eta errentaren arabera aztertu beharko litzateke.
JEZ: Enplegu Erregulazioko Espediente egoeran dauden enpresek zerga ez ordaintzea.
Ibilgailuak: hazkundea % 2,5 izatea guztiontzat eta furgoneten kasuan ez dadila gehiago ordaindu, lanerako erabiltzen baitira.
Aulki eta mahaien tasak: tasa hori kentzeko eskatu du, ostalaritzaren sektorea ekonomiaren eragile delako eta jada BEZa ordaintzen duelako.
Osoko Bilkuren Aretoa ezkontzetarako okupatzeagatiko tasa: ezkontideetako bat Astigarragakoa baldin bada tasa hori ez kobratzea.
Amaitzeko, kontrako bozka emango duela esan du, gobernu-taldearen asmoa dirua lortzea baino ez delako.

Interviene Bixente Arrizabalaga quien señala que van a votar en contra de la propuesta dado que su propuesta es distinta y se ajusta a:
IBI: quitar las bonificaciones directas por familia numerosa, y debería analizarse un función de la renta
IAE: las empresas en ERE no paguen el impuesto.
Vehículos: el incremento sea para todos del 2,5%, no se grave a las furgonetas más, dado que se utilizan como herramienta de trabajo.
Tasas sillas y mesas: solicita que se quite esta tasa, dado que el sector hostelero es motor económico y ya paga iva.
Tasa por ocupación del Pleno para bodas: que no se cobre si uno de los que se casa es de Astigarraga.
Concluye diciendo que van a votar en contra porque el equipo de gobierno tiene afán recaudatorio.

Alkateak hitz egin du eta Bixentek lotsa gutxi duela esan du. Familia ugarientzako hobariak H1 alderdia alkatetzan egondako

Interviene el alcalde señalando que Bixente tiene poca vergüenza. Señala que las bonificaciones a familias numerosas

legealdietan onartu zirela aipatu du eta orduan urtero onartu zituztela, baina orain hobari horiek kentzeko eskatzen ari direla; 8 urte izan dituzue hobariak familiaren errentaren arabera ezartzeko eta ez duzue egin. Terrazei dagokienez, azken 3 urteotako ordenantzetan aplikatu beharreko tasa zehazten zen baina azken 3 urteotan ez dituzue eman kontzeptu horrengatiko likidazioak. Ostalariek BEZa ordaintzen duten kontuari dagokionez, berez ordaintzen duena azken kontsumitzailea dela azaldu du, ez ostalaria. Bukatzeko, lotsa gutxi duela esan dio alkateak Bixenteri.

fueron aprobadas en los años de la legislatura de H1, que ellos aprobaron cada año, y ahora solicitan que se quite; habéis tenido 8 años para ajustar las bonificaciones con la renta familiar y no lo habéis hecho. En cuanto a las terrazas, las ordenanzas de los 3 últimos años recogían la tasa que se debía aplicar pero en los 3 últimos años no habéis emitido las liquidaciones por ese concepto. En cuanto al pago del iva de los hosteleros matiza que el pago del iva quien lo hace es el consumidor final no el hostelero. Concluye el alcalde indicando que Bixente tienes poca vergüenza.

Une horretan, Bixente Arrizabalaga zinegotziak erantzun du ekonomia da,ergela eta alkateak erantzun hori aktan jasotzeko eskatu du.

En ese momento el concejal Bixente Arrizabalaga contesta al alcalde diciendo que es la economía, estúpido y el alcalde solicita que conste en acta.

Zorione Etxezarraga zinegotziak esan du bere taldeak abstentzioaren alde egingo duela, hasieran, behintzat, eta jendaurrean jartzeko aldian aztertuko dutela alegaziorik egingo ote duten.

La concejal Zorione Etxezarraga señala que su grupo se va a abstener en principio y que en el período de información pública analizarán si formulan ó no alegaciones.

Irizpenari buruzko bozketa egin da eta onartu egin da: aldeko 5 bozka (EH Bildu), abstentzio 1 (EAJ/PNV), eta kontrako 2 bozka (H1).

Sometido a votación el dictamen es aprobada con 5 votos a favor (EH Bildu), 1 abstención EAJ/PNV, y 2 votos en contra H1.

## 3. <u>Hiri hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantzari hasierako onarpena ematea</u>

## 3. <u>Aprobación inicial de la ordenanza reguladora de la recogida y tratamiento de residuos urbanos</u>

Obra eta zerbitzu batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabaki hauek har daitezen proposatzen da irizpen horretan:

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de obras y servicios, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

Lehenik.- Hasierako onespena ematea hiri hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantzari.

Primero.- Aprobar inicialmente el texto redactado sobre la ordenanza reguladora de la recogida y tratamiento de residuos urbanos.

Bigarrenik.- Ordenantzaren testua jendaurrean ikusgai jartzea, 30 laneguneko epean; eta horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, prentsan eta iragarkien udal tauletan argitaratzea.

Segundo.- Someter el texto a información pública, durante el plazo de 30 días hábiles, mediante anuncios en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en prensa y en el tablón de anuncios municipales.

Hirugarrenik.- Jendaurrean ikusgai dagoen bitartean erreklamaziorik jaso ezean, ordenantza behin betiko onartutzat joko da, udalbatza osoak berriro erabaki beharrik gabe. Hori horrela, ordenantzaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta estatuko nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei kopia bana bidaliko zaie.

Tercero.- Transcurrido el periodo de exposición pública sin haberse producido reclamaciones, la ordenanza se entenderá definitivamente aprobada sin requerirse nuevo acuerdo plenario y publicándose el texto íntegro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y remitiéndose una copia a la Administración del Estado y de la Comunidad Autónoma Vasca.

Jarraian, alkateak ordenantzaren edukia azaldu du labur-labur.

A continuación el alcalde explica brevemente el contenido de la ordenanza.

Zorione zinegotziak esan du aurreko legealdian ez zela ordenantzarik prestatu, udaleko langileek ere ez zutelako eskatu; beraz, politikariek ez zuten horren premiarik sumatu.

Interviene la concejal Zorione quien señala que en la anterior legislatura no se preparó una ordenanza dado que tampoco fue sugerida por los trabajadores del propio ayuntamiento, de modo que como políticos no percibieron la necesidad de esta regulación.

Bixente Arrizabalaga zinegotziaren esanetan kontra bozkatuko dute, ordenantza hori atez ateko sistema ezartzeko egiten baitute. Guk ez genukeen ordenantza hori egingo eta 5. edukiontziaren alde egingo genuke. 16. artikulua aipatu du; horren arabera, Eraikin guztiek lokal bat izango dute hiri hondakinak utzi ahal izateko. Lokal hauetatik jasoko dituzte udal-zerbitzuek hiri-hondakinak. Halaber, esan duenez, 40. artikuluaren arabera ikuskapenak egingo dituzten langileak izango dira eta horrek esan nahi du kontratazio gehiago egin beharko direla.

Interviene el concejal Bixente Arrizabalaga señalando que van a votar en contra porque esta es una ordenanza que se hace para la implantación del PaP. Nosotros no hubiéramos hecho esta ordenanza y haríamos una apuesta por el 5º contenedor. Hace mención al art.16. todos los edificios dispondrán de un local…para almacenamiento previo a su retirada por los servicios municipales de los residuos urbanos. Señala también que del art.40 se deriva que habrá personal que haga función de inspección; lo que implicará nuevas contrataciones.

Alkateak Zorioneri erantzun dio ez dela egokia berak esan duena esatea, hau da, ez zutela ordenantza egin udaleko langileek proposatu ez zutelako, eta

Contesta el alcalde señalando a Zorione que es feo imputar la no realización de la ordenanza a que los trabajadores del ayuntamiento no lo hayan propuesto, y en relación a la intervención de Bixente

Bixentek esandakoari dagokionez zera esan du, ordenantza osoa irakurriz gero argi eta garbi ulertzen dela biltegiratzeko lokal bat izateko betebeharra eraikin berriei baino ez dagokiela (Eraikuntzako Kode Teknikoa).

recuerda que la lectura completa de la ordenanza queda claro que la obligatoriedad de disposición de local de almacenamiento va vinculada a las nuevas construcciones (código técnico de edificación).

Segidan, eztabaida sortu da Zorionek Diario Vasco egunkarian argitaratu zuen idazkiaren gainean; alkateak esan duenez, garbiguneak San Marko Mankomunitatearenak dira eta Astigarragako herritarrek Garberako garbigunea eta Hernanikoa ere erabil ditzakete.

A continuación se suscita un debate en relación al escrito publicado por Zorione en el Diario Vasco, concluyendo el alcalde que los garbigunes son propiedad de la Mancomunidad de San Marko y que los vecinos de Astigarraga pueden utilizar tanto el garbigune de Garbera como el de Hernani.

Bixente Arrizabalaga zinegotziak honako hau esan du: Andoni, batzuetan gezurti hutsa zara eta guk diogu Hernanin atez ateko sistema ezarri denetik Astigarragan zabor gehiago botatzen dela. Horregatik agindu nien udaltzainei kontu hori aztertzeko.

El concejal Bixente Arrizabalaga interviene indicando que a veces Andoni eres un mentiroso y nosotros decimos que con la implantación del PaP en Hernani, se incrementó la basura depositada en Astigarraga, y por eso mandé a la guardia municipal a inspeccionar eso.

Alkateak honako hau erantzun du: nik ez dut inoiz hori ukatu; nik zera esan nuen, San Markoko datuen arabera, Astigarragak 2010. urtean botatako zabor-tonak 2008an baino gutxiago izan zirela.

Contesta el alcalde diciendo que yo eso nunca he negado, dije que según datos de San Marko las toneladas de basura depositadas por Astigarraga en el 2010 se redujeron respecto al 2008.

Herritar batek galdetu du ea parte hartzeko prozesuan, alkateak proposatutakoaz gain, bestelako konponbiderik aterako ote den. Galdera: parte hartzeko prozesuan ekarpen guztiak jasotzeko asmoa al dago? Esan duenez, herritarrek oraindik ez dute jaso osoko bilkuran onartzeko aurkeztu den ordenantza eta, beraz, ezin dute ordenantza horri buruz ezer esan. Hortaz, parte hartzeko prozesuan ekarpen guztiak egin ahal izatea komeni da.

Interviene un vecino preguntando si en el proceso participativo va a dar pie a dar soluciones distintas a las planteadas por el alcalde. Pregunta: si está pensado el proceso participativo para recoger todas las aportaciones. Señala que los vecinos todavía no disponen de la ordenanza presentada para su aprobación por el pleno, de modo que todavía no pueden manifestar nada en relación a esta ordenanza, por lo que interesa que el proceso participativo pueda permitir aportar todo.

Beste herritar batek jakin nahi du ezarri beharreko sistemaren oinarriak definitzeko aldez aurreko parametroak zeintzuk diren.

Otra vecina pregunta cuales son los parámetros previos para definir las bases del sistema que se implante.

Alkateak erantzun du. Birziklatzea % 80 izatea eta proiektua bideragarria izatea.

Contesta el alcalde. Reciclaje del 80%, y que el proyecto sea viable.

Beste herritar batek galdera egin du: herriak proposatzen dituen bestelako aukerak onartzeko prest ote dauden eta

Otro vecino pregunta si están dispuestos a aceptar las alternativas que plantea el pueblo y si darán opción a realizar una

kontsulta egiteko aukerarik emango ote duten.
Alkateak esan du sistemak konparatu beharko direla.

consulta.
El alcalde contesta que habrá que comparar sistemas.

Zorione Etxezarraga zinegotziak hitz egin du eta, Hernanin, atez atekoarekin bilketa 600.000 € garestiagoa dela esan du, eta gobernu-taldeak ezarri nahi duen sistemaren kostuaren berririk ez dugula.

Interviene la concejal Zorione Etxezarraga quien señala que la nueva recogida de Hernani con el PaP se ha encarecido en 600.000€, y que no conocemos lo que cuesta el sistema que quiere implantar el equipo de gobierno.

Alkatearen arabera, bideragarritasun-plana jasoa da.

Contesta el alcalde que está en el plan de viabilidad.

Irizpenari buruzko bozketa egin da eta onartu egin da: aldeko 5 bozka (EH Bildu) eta 3 kontra (bozka 1 EAJ/PNV eta 2 bozka H1).

Sometido a votación el dictamen es aprobado con 5 votos a favor (EH Bildu), y 3 votos en contra (1EAJ/PNV, y 2 votos en contra H1).

## 4. Kale-plazetan mahitxoak eta eserlekuak jartzeko udal ordenantzari hasierako onarpena ematea

## 4. Aprobación inicial de la ordenanza reguladora de la instalación de mesitas y sillas en calles y plazas

Obra eta zerbitzu batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabaki hauek har daitezen proposatzen da irizpen horretan:

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de obras y servicios, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

Lehenik.- Hasierako onespena ematea kale-plazetan mahaitxoak eta eserlekuak jarri eta erabiltzea arautuko duen udal ordenantzari.

Primero.- Aprobar inicialmente el texto redactado sobre la ordenanza municipal reguladora de la instalación y utilización de mesitas y sillas en calles y plazas.

Bigarrenik.- Ordenantzaren testua jendaurrean ikusgai jartzea, 30 laneguneko epean; eta horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, prentsan eta iragarkien udal tauletan argitaratzea.

Segundo.- Someter el texto a información pública, durante el plazo de 30 días hábiles, mediante anuncios en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en prensa y en el tablón de anuncios municipales.

Hirugarrenik.- Jendaurrean ikusgai dagoen bitartean erreklamaziorik jaso ezean, ordenantza behin betiko onartutzat joko da, udalbatza osoak berriro erabaki beharrik gabe. Hori horrela, ordenantzaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean

Tercero.- Transcurrido el periodo de exposición pública sin haberse producido reclamaciones, la ordenanza se entenderá definitivamente aprobada sin requerirse nuevo acuerdo plenario y publicándose el texto íntegro en el Boletín Oficial de

argitaratuko da, eta estatuko nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei kopia bana bidaliko zaie.

Gipuzkoa y remitiéndose una copia a la Administración del Estado y de la Comunidad Autónoma Vasca.

Alkateak esan duenez, azken 3 urteotan udalak ez du kobratu kontzeptu horrengatiko tasarik, ostalariak ez zeudelako ados udal-ordenantzarekin eta orain aurkeztu den ordenantza berria eraginpeko gremioek aztertu eta onartu dute.

Interviene el alcalde señalando que tras 3 años en los que el ayuntamiento no ha girado las tasas por este concepto por disconformidad de los hosteleros con la ordenanza municipal, ahora se presenta la nueva ordenanza que ha sido analizada y aceptada por los gremios afectados.

Irizpenari buruzko bozketa egin da eta onartu egin da: aldeko 6 bozka (5 EH Bildu eta 1 EAJ/PNV), eta kontrako 2 (H1).

Sometido a votación el dictamen es aprobada con 6 votos a favor (5 EH Bildu, 1 EAJ/PNV), y 2 votos en contra H1.

## 5. Informazio, galdera-erreguak

## 5. Información, ruegos y preguntas

5.1 Alkateak zera galdetu die H1 alderdiko zinegotziei, Noticias de Gipuzkoa egunkarian 2012ko urriaren 8an argitaratu zen prentsa-artikuluaren edukia berretsi egiten ote duten.
Imanol Lizarralde zinegotziak baietz erantzun dio.

5.1 El alcalde pregunta a los concejales de H1, si se ratifican con el contenido del artículo de prensa publicado en Noticias de Gipuzkoa el 8-10-2012.

Contesta el concejal Imanol Lizarralde que sí.

Zorione Etxezarraga zinegotziak esan duenez, zinegotziek jarduera politikoaren barruan idatzitako prentsa-artikuluen erreferentzia bi aldiz egin du jada alkateak. Bere ustez, oposizioko zinegotzien zeregina oposizioa egitea da eta puntu hau ez da jarduera politikoari buruzko iritziak emateko foroa.
Alkateak erantzun du oposizioaren zeregina gobernu-taldea kontrolatzea dela baina horrek ez du esan nahi zuek nahi duzuena esan dezakezuenik; pena ematen dit Osoko Bilkuran horrelako 2 pertsona egotea.
Imanol Lizarraldek esan du penagarria ez dela hori, baizik eta Astigarragan alkate bera izatea.

Interviene la concejal Zorione Etxezarraga indicando que es la segunda vez que viene el alcalde con referencias de artículos de prensa emitidos por los concejales en su actividad política. Señala que la labor de los concejales de la oposición es mantener su labor de oposición y este punto no es el foro para enjuiciar la actividad política.
El alcalde contesta que la labor de la oposición es fiscalizar al equipo de gobierno pero no podéis decir los que os de la gana, y me da pena que haya 2 personas como éstas en el Pleno.

Contesta el concejal Imanol Lizarralde que lo que es pena es que Astigarraga le tenga a él como alcalde.

5.2 Herritar batek (Joxi Urangak) honako hau gogorarazi dio Zorione Etxezarraga

5.2 Un vecino (Joxi Uranga) le traslada a la concejal Zorione Etxezarraga que en el

zinegotziari: irailaren 27ko osoko bilkuran, ikastolarako plan estrategiko bat zuela esan zuela eta plan hori Eusko Jaurlaritzara igorri zela; hori horrela izanik, urriaren 3an plan horren kopia bat eskatu zion eta oraindik kopiarik jaso ez duenez, udalean idazki bat aurkeztu du izapidetzeko, hezkuntza-zinegotziak ikastolako guraso-elkarteari gai horri buruzko informazioa eman diezaion eskatzeko eta udalak Plan horren kopia bat eskatzeko Zorioneri.

pleno del 27 de septiembre indicó dicha concejal que el ayuntamiento disponía de un plan estratégico para la ikastola y que se remitió al Gobierno Vasco, por lo que con fecha 3 de octubre le solicitó una copia de dicho plan, indicando que no ha recibido, por lo que le dirige escrito al ayuntamiento para su tramitación, solicitando que la concejal de educación informe a la asociación de padres de la ikastola en relación a este tema y el ayuntamiento solicite a Zorione copia de dicho Plan.

Zorione Etxezarragak erantzun du berak ez zuela esan Ikastolaren Plan Estrategikoa zegoenik, baizik eta udalak Plan Berezi bat egin zuela ikastolari buruz, handitzearen gaia, patioa eta abar aztertzeko, eta plan hori Eusko Jaurlaritzan aurkeztu zutela. Bukatzeko, gai honen erabilera lotsagarria iruditu zaiola esan du.

Contesta la concejal Zorione Etxezarraga que no dije que había un Plan Estratégico de la Ikastola sino que el ayuntamiento elaboró un Plan Especial en relación a la ikastola para abordar la ampliación, el patio etc., y que se presentó al Gobierno Vasco, finaliza señalando que le parece vergonzosa la utilización que se ha realizado de este punto.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2012ko azaroaren 5a

**Xabin Olaizola Lasa**
**Idazkaria**